

Egiaztatze-zerrenda



1. BALIO-PROPOSAMENA: Nola eta zertan hobetzen du proiektuak EAEko biodibertsitateari buruzko ezagutza?

ZER MAILATAN KOKATZEN DA PROIEKTUA?

Lehen mailako datuak integratzen edo kudeatzen ditu

- Ezartzen du datuak biltzeko eta kudeatzeko metodologiarik, eta bateratzen ditu datuak?
- Proposatzen du boluntarioak prestatzeko ikaskuntza-ibilbiderik, identifikatzen zailak diren eta haiei buruzko datu gutxi dagoen espezieak identifikatzen eta erregistratze laguntzeko?
- Ezartzen ditu datuak biltzerakoan kalitate-, baliozkotze- eta eguneratze-irizpideak?

INFORMAZIOA EMATEN DU

- Bistaratzen edo deskribatzen du leku jakin batean edo denboran zehar gertatzen dena?
- Sortzen ditu erabakiak hartzen laguntzen duten interpretazioak/ereduak/joerak?

EZAGUTZA GEHITZEN DU

- Giza ekintzak kontuan hartuta, biodibertsitatea zer den hobeto ulertzen dugu?
- Ematen du ebaluazio-tresnarik zer eragin antropogeniko izan den edo politikak eta ekintzak efektiboak izan diren neurtzeko?
- Emaitzak eragile guztiek eskuratuko eta ulertuko dituzte? Eskaintzen du komunikazio- eta dibulgazio-tresnarik, jendeak oro har biodibertsitatea zer den hobeto uler dezan?

ZER BEHAR/ERRONKARI ERANTZUN BEHAR DIOGU?

- Laguntzen du arriskuan dauden edo babes-premia handiagoa duten espezieen eta habitaten jarraipena egiten?
- Eskaintzen ditu espezie/habitaten edo batasunaren edo eskualdearen intereseko lekuen kontserbazio-egoera neurtzeko edo hobetzeko tresnak?
- Erantzun nahi dio planteatzen den eremuan dagoen informazio- edo ezagutza-hutsune bati?
- Ikuspegi zehatzagoa du? Erabiltzen ditu adierazleak?

ELEMENTU BERRITZAILEAK Zertan bereizten da lehendik dauden irtenbideetatik? Eta egiten genuenetik?

- Laguntzen du datuak eta eskuragarri dagoen informazioa ulertzen?
- Ematen dugu beste ikuspegi edo metodologia bat?
- Sortzen du harreman/kolaborazio berririk sistemako eragileen artean?
- Sortzen du lehen ez zegoen lekuan informazio-fluxurik?
- Estandar berriak gehitu ditu?

ONURAK

- Optimizatzen ditu baliabideak?
- Kalitate hobea ematen du (zehaztasuna, metodologia, estandarrak...)?

- Eskuragarriagoa da (jende gehiagorengana iristen da)?
- Erantzuten dio behar bati baino gehiagori edo helburu bati baino gehiagori?
- Moldagarria eta malgua da (ikasitakoa beste esparru edo xede-publiko batera eramateko balio du)?
- Sortzen ditu biodibertsitatearen eremuko gaitasunak eta ezagutza?
- Definitzen ditu emaitzen onuradunak?

2. PROPOSAMENAREN EDUKIA

- Helburu zehatza eta neurgarria du?
- Irismena eta hartzaileak argi definitzen ditu? (NON, ZERI BURUZ, NORENTZAT, NOIZ?)
- Azaltzen du zer bitarteko/baliabide jarriko diren proiektua egin dadin?
- Azaltzen du zergatik den garrantzitsua egitea?
- Definitzen du informazioa nola kudeatuko den?
- Ezartzen du lan-planik?
- Ezartzen du emaitzak komunikatzeko/hedatzeko planik?
- Aurreikusten du zer arrisku edo traba izan daitezkeen eta zer irtenbide inplementa daitezkeen, halakorik gertatzen bada?
- Ematen du ebaluaziorako tresnarik?
- Zeharkako elementuak sartzen ditu, hala nola teknologikoak, hizkuntzen erabilera eta kudeaketa, genero-berdintasuna, lurraldetasuna...?

3. ORIENTAZIO ESTRATEGIKOA

Prestakuntza eta trebakuntza

- Ezartzen edo integratzen du ezagutza pertsonen eta erakundeen artean transferitu eta partekatu ahal izateko espaziorik?

Irekitasuna, berrerabilpena eta gardentasuna

- Badu datu irekien politikarik, eskuragarritasun-, sarbide-, berrerabilpen- eta birbanaketa-irizpideak beteko dituenik?
- Laguntzen du biodibertsitateari buruzko informazio-sare globalak elikatzen?

Ezberdinen artean elkarlanean aritzea

- Txertatzen du zeharkako begiradarik, biodibertsitatean espezializatuta ez dauden sektoreak inplikaturik?
- Jasotzen du politika publikoak erabakitzen dituzten unitate eta pertsonekin komunikazioa eta atzeraelikadura izateko mekanismorik?

Oinarri soziala indartzea

- Inpliketzen ditu tokiko eragileak, testuinguruan kokatutako parte-hartzea sustatzeko, heldu nahi diogun erronkatik hurbilen dagoen komunitatea konponbidea bilatzeko interplatuta senti dadin?
- Herritarren zientzia-ekimenetan/crowdsourcing ekimenetan oinarrituta dago?
- Jorratzen ditu adin desberdinetako pertsonen parte hartzen duten ekintzak?

